## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

### ZIERBENAKO UDALA

IRAGARPENA, Zierbenako Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen hasierako onarpenari buruzkoa. 5784

## Otros Anuncios Oficiales

### AYUNTAMIENTO DE ZIERBENA

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Zierbena. 5784

# Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**Zk-1438**

7/1998 LEGEA, martxoaren 13koa, Energiaren Euskal Erakundea sortu zuen Legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

MARTXOAREN 13KO 7/1998 LEGEA, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA SORTU ZUEN LEGEA ALDATZEKOA.

ZIOEN AZALPENA

Energiaren Euskal Erakundea 1982. urtean sortu zen, azaroaren 24ko 9/1982 Legearen bidez, energiaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduerak planifikatzeko, koordinatzeko eta kontrolatzeko zegoen beharrari erantzuteko asmoz. Beste administrazio publiko batzuetan bezalaxe, eremu horretan aritzeko tresnarik egokiena, izaera publikokoa izanagatik ere, zuzenbide pribatuaren menpe egongo zen erakundea izango zela pentsatu zen.

Harrezkero, Energiaren Euskal Erakundeak eta bere menpe dauden elkarte publikoek egindako lanek energiaren alorrean hainbat eta hainbat alderdiri erantzun diote, aipatzekoa delarik gas naturalaren sektorean izan duten parte-hartzea.

Energiaren Euskal Erakundea, bai egitura aldetik bai berari dagozkion funtzioen aldetik, energi sektorearen garapenerako zeuden baldintzak eta, oro har, administrazio publikoek jarduera ekonomikoan parte hartzen zuten modua bera ere oso bestelakoak ziren garai batekoa da.

# Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**N°-1438**

LEY 7/1998, de 13 de marzo, de modificación de la Ley por la que se crea el Ente Vasco de la Energía.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente

LEY 7/1998, DE 13 DE MARZO, DE MODIFICACIÓN DE LA LEY POR LA QUE SE CREA EL ENTE VASCO DE LA ENERGÍA.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Ente Vasco de la Energía fue creado en el año 1982 en virtud de la Ley 9/1982, de 24 de noviembre, por la necesidad y con la finalidad de planificar, coordinar y controlar las actividades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el campo de la energía. Al igual que en otras Administraciones públicas, se consideró que una entidad de naturaleza pública pero sometida fundamentalmente al derecho privado era el instrumento más adecuado para actuar en dicho campo.

La labor desarrollada desde entonces por el Ente Vasco de la Energía y las sociedades públicas dependientes del mismo ha atendido a aspectos muy diversos en el área de la energía, debiéndose destacar su intervención en el sector del gas natural.

El Ente Vasco de la Energía, tanto en su estructura como en las funciones atribuidas al mismo, es deudor de una época histórica en la que las condiciones de desarrollo del sector energético y, en general, las propias formas de intervención de la Administración pública en la actividad económica tenían unas características muy diferentes a las actuales.

Europako Elkartean, edo gaur egun Europako Batasuna den horretan, sartzeak energiaren erregimen juridikoaren aldaketa fase bati ekitea ekarri zuen; ordurarte merkatua eskaintzaren ikuspuntutik baino ez zen ikusten, monopolio izaerako agenteak zituen eta, bere arauen arabera, jatorrizko itunetan bermatutako askatasun ekonomikoak ez zegoen indarrean jartzerik, batez ere merkantziak batetik bestera askatasun osoz mugitzeaz nahiz nonbait geratzeko askatasunaz zihardutenak.

Energiaren eremu guztietan gertatzen ari diren aldaketengatik, arautegien egunetik egunerako liberalizazio handiagoagatik, lehen estatuan edo herrialde mailan geratzen ziren merkatu horiek etengabe nazioartera zabaltzen doazelako, eta aipatu ditugun aldaketa horien eraginez, hain zuzen, administrazio publikoen jarduteko modua bera ere aldatzen ari delako, Energiaren Euskal Erakundea sortu zuen legea aldatzea komenigarria eta beharrezkoa da, bere jarduteko modua eta estatutua, estatuan eta nazioartean dauden antzerako beste batzuenekin berdintzeko asmoz. Era berean, Energiaren Euskal Erakundearen jarduteko modua aldatzerakoan beste alde garrantzitsu bat jaso behar da, hau da, energiaren ingurura mugatuta dituen ekintzak, horietatik sortutako sinergiak aprobetxatuz, beste ekintza ordezkatzaile batzuen bitartez osatzea beharrezkoa da.

Hala, bada, aipatu dugun gai horri buruz Industri Politikaren Planak, 1996ko otsailaren 12an Eusko Legebiltzarrak berretsi eta 1996-1999 aldirako jarduera eremu orokorra ezartzen zuenak, dioenez, industri politikak energi sistemetako aldaketa orokorrak bultzatu behar ditu, mendebaldeko herrialdeetan eta bereziki Europako Batasunean sektore horiek jasaten ari diren joera liberalizatzaileen ildo beretik; energien salneurriak murrizteko bide gisa, lehia sartzea proposatzen dute joera horiek. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren energi politika Estatukoarekin eta Europako Elkartekoarekin bateragarria izan beharko dela eta politika hori eraginkorragoa izango bada, ekimen pribatua kontutan hartu beharko dela ere aipatzen da plan horretan.

Munduko ekonomi sisteman gertatzen ari diren aldaketek, hots, merkatuen egunetik egunerako liberalizazio handiagoaren ildotik doazenek, jarrera kontinuista eta isolazionista baztertzea eskatzen dute, errealitate berria onartzea eta aldaketa kontrolatzea, alegia. Halaber, beste herrialde batzuetan gertatzen ari den bezala, energiaren merkatuan lehia sartzeak berekin ekarriko ditu beste hainbat jarduera sinergiko, esate baterako, uren banaketen edo telekomunikabideen sektorean zerbitzua ematea.

Esandakoari dagokionez, Industri Politikaren Planak, energiaren alorreko jarduerak gauzatzeko eta kudeatzeko, Energiaren Euskal Erakundea eta bere taldeko elkarteak jotzen ditu gai horretan politika

El ingreso en la Comunidad Europea, hoy Unión Europea, supuso el inicio de una fase de transformación del régimen jurídico de la energía, anclado inicialmente en una visión del mercado exclusivamente desde el punto de vista de la oferta, con agentes de carácter monopolístico, y cuyas normas negaban la vigencia de las libertades económicas garantizadas en los tratados originarios, especialmente en relación a la libre circulación de mercancías y a la libertad de establecimiento.

Las transformaciones que se están produciendo en los diferentes campos de la energía, la liberalización gradual de las diferentes normativas, la progresiva internacionalización de estos mercados, anteriormente limitados al ámbito estatal o regional, así como la superación de las formas de actuación de la Administración pública como consecuencia, precisamente, de estos cambios normativos, aconsejan y advierten de la necesidad de modificar la ley de creación del Ente Vasco de la Energía con objeto de equiparar sus modos de actuación y estatuto a los de otras instituciones similares estatales e internacionales. Asimismo, la modificación de las formas de actuación del Ente Vasco de la Energía debe englobar también otro aspecto de interés como es la necesaria complementación de sus actividades estrictamente energéticas con otras de carácter subsidiario aprovechando las sinergias que se derivan de aquéllas.

En efecto, el Plan de Política Industrial, ratificado por el Parlamento Vasco con fecha 12 de febrero de 1996 y que establece el marco general de actuación para el período 1996-1999, señala en relación con esta cuestión que la política industrial debe propiciar reformas globales de los sistemas energéticos en línea con las tendencias liberalizadoras que están viviendo estos sectores en los países de occidente y particularmente en la Unión Europea, tendencias que propugnan introducir la competencia como vía de reducción de los precios energéticos. Asimismo, dispone que la política energética de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberá ser compatible con la política estatal y comunitaria y tener en cuenta a la iniciativa privada a fin de hacer más efectiva dicha política.

Los cambios que se están sucediendo en el sistema económico mundial, en la línea de una creciente liberalización de los mercados, exigen adoptar una actitud no continuista ni aislacionista que suponga la aceptación de la nueva realidad y el control del cambio. Asimismo, y asociadas a la apertura a la competencia del mercado energético, surgirán, al igual que está sucediendo en otros países, nuevas actividades sinérgicas como la prestación de servicio en sectores como el de distribución de agua o las telecomunicaciones.

A este respecto, para la materialización y gestión de las actuaciones en materia energética, el Plan de Política Industrial define al Ente Vasco de la Energía y las sociedades de su grupo como el principal ejecu-

publikoaren gauzatzaile nagusitzat, eta, zehazteko orduan, berriz, 3E-2005 Planak (Euskadiko estrategia energetikoaren azterketa) ezarritako ildoari lotzen zaio. Agiri estrategiko horretan Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Taldeari eman nahi zaion norabide berria agertzen da: oinarrizko beste zenbait printzipioren artean, nabarmentzekoak dira energi azpiegiturak gauzatzerakoan enpresarekiko lehiakortasun-ikuspuntua aintzat hartzea, merkatu librearen eta lehiaren printzipioak baloratzea burutu beharreko ekimen eta proiektuetan, ideia horrekin oinarrizko ekintzak gehiagotzeak zer-nolako garrantzia duen adierazi nahi delarik.

Horregatik, bada, industri eremurako orokorrean, eta bereziki energiaren eremurako, diseinatu den sektore plangintzaren ondorioz, Energiaren Euskal Erakundeak aurrerantzean izango duen jardunaren orientabide berriak ez dauka zertan, zuzenbide pribatuko erakunde publiko modura, erakundearen pertsonifikazio juridikoaren aldaketa suposatu. Izan ere, aipatutako plangintzak egozten dizkion funtzioen izaerak berak justifikatzen baitu konfigurazio hori. Dena den, Erakunde Administrazioak berak jardungo duen eremua zehazten duten lege aginduetara egokitu behar duenez derrigor bere jarduna, beharrezko da bera sortu zuen arauan aldaketa egotea: alde batetik, orientabide estrategiko berriarekin bat etorriz, bere jarduera eremua zabal dadila, eta, beste alde batetik, erakunde publikoak bere jarduerak garatzeko dituen enpresak elkarte publikoak izan beharra deuseztatu egin dadila, azken baldintza horrek gehiegi mugatzen baititu jarduteko dituen aukerak.

*Lehenengo atala.–*

Energiaren Euskal Erakundea sortu zuen azaroaren 24ko 9/1982 Legearen 4. atala aldatu eta ondoren adierazi bezala geratu da idatzita:

> «Energiaren Euskal Erakundeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, energiaren eremuan, gaur egun edo aurrerantzean burutuko dituen jarduerak planifikatzea, koordinatzea eta kontrolatzea, eta bidenabar energiaren alorreko beste zenbait eremu sinergikotan, esate baterako urarenean eta telekomunikabideenean, zerbitzuak kudeatzen, eta, hala balegokio, ematen parte hartzea, bere aginpideen barruan, Gobernuaren norabideen arabera».

*Bigarren atala.–*

Energiaren Euskal Erakundea sortu zuen azaroaren 24ko 9/1982 Legearen 6. atalaren 2. lerroaldea deuseztaturik geratzen da.

tor de las políticas públicas en dicha materia y se remite a las directrices fijadas por el Plan 3E-2005 (revisión de la estrategia energética en Euskadi) para su concreción. Este documento estratégico contempla una reorientación del Grupo EVE que viene marcada, entre otros principios básicos, por la consideración de un enfoque empresarial competitivo en la materialización de las infraestructuras energéticas y la valoración de los principios de libre mercado y competencia en las iniciativas y proyectos a llevar a cabo, entendiendo en esta idea la importancia de la ampliación de la base accionarial.

Por tanto, la nueva orientación de la actuación futura del Ente Vasco de la Energía, derivada de la planificación sectorial diseñada para el ámbito de la industria en general, y de la energía en particular, aunque no tiene por qué implicar una modificación de la personificación jurídica del Ente Vasco de la Energía como ente público de derecho privado, configuración que se considera justificada por la naturaleza de las funciones que le atribuye la citada planificación, sin embargo, sí exige, dado que la Administración institucional debe acomodar necesariamente su actuación a las prescripciones legales que determinan el alcance de su campo de actividad, una modificación de su norma de creación de tal forma que, por un lado, se amplíe el alcance de su campo de actividad en consonancia con la nueva orientación estratégica, y, por otro, se suprima la exigencia de que las empresas a través de las cuales desarrolle el ente público su actividad tengan el carácter de sociedades públicas, ya que tal condición limita excesivamente sus posibilidades de actuación.

*Artículo primero.–*

Se modifica el artículo 4 de la Ley 9/1982, de 24 de noviembre, por la que se crea el Ente Vasco de la Energía, que queda redactado como sigue:

> «El Ente Vasco de la Energía tendrá a su cargo la planificación, la coordinación y el control de las actividades actuales y futuras del sector público de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el campo de la energía, así como participar en la gestión y prestación, en su caso, de servicios en otros campos sinérgicos al energético tales como agua, telecomunicaciones y otros, de acuerdo con las directrices del Gobierno en el ámbito de sus competencias».

*Artículo segundo.–*

Queda suprimido el párrafo 2 del artículo 6 de la Ley 9/1982, de 24 de noviembre, por la que se crea el Ente Vasco de la Energía.

AZKEN XEDAPENA

Honako lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko martxoaren 23an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-1439

40/1998 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko dena.

Gizarte zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen helburua, herritar guztiek gizarte zerbitzuak izateko eskubidea sustatzea eta bermatzea da, erantzukizun publikoaren sistema egituratuz eta antolatuz. Beraz, Lege horren helburua ez da prestazio batzuk ematea bermatzea, baizik eta, erantzukizun publikoko sistema bat oinarri dela, eskubide bat antolatu, egituratu, sustatu eta bermatzea, herritarrek gizarte zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea, hain zuzen.

Gizarte zerbitzuak baliabide, jarduera, prestazio eta ekipamendu multzo bat dira, baina guztiak ere antolatuta. Hau da, babes sistema berezia dira gizarte zerbitzuak, Gizarte Segurantzak ematen duen sistematik aldentzen dena, baina hori ere herri erantzukizunekoa da, bermatua dago eta denentzako da.

Sistema horrek, antolatuta egonik, bi helburu ditu. Batetik, «ongizate-estatuan» lortutako mailari eutsi eta maila hori hobetzea nahi du. Horretarako, zorrotz zaindu behar dira ongizate-estatuaren zutabeak, eta oraindik ere gabezia larriak dituzten biztanle-taldeentzako babesa lortu behar da herri-erantzukizunpean. Bigarren helburua, bestalde, premiarik larrienei laguntza eta babesa emango zaiela bermatzea da, eta, hartara, bereizkeria positiboa egin behar da txartoen aurkitzen direnekin eta gizarteak baztertuta dituenekin.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-1439

DECRETO 40/1998, de 10 de marzo, por el que se regula la autorización, registro, homologación e inspección de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El objeto de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales consiste en la promoción y garantía del derecho de toda la ciudadanía a los servicios sociales, mediante la ordenación y estructuración de un sistema de responsabilidad pública. Por lo tanto, su objeto no es ya garantizar una serie de prestaciones, tal y como señalaba la Ley 6/1982, sino ordenar, estructurar, promover y garantizar mediante un sistema de responsabilidad pública, un derecho, el derecho de la ciudadanía a los servicios sociales.

Estos servicios sociales se configuran como un conjunto de recursos, actividades, prestaciones y equipamientos, dotados de una organización, es decir, como un sistema de protección específico y distinto del de la Seguridad Social, pero así mismo de responsabilidad pública, garantizado y universal.

Este sistema organizado responde a una doble finalidad. De un lado, la de mantener y profundizar las cotas alcanzadas en el llamado «Estado de Bienestar», con una apuesta firme en la defensa de los pilares del mismo y de la responsabilidad pública en la cobertura de las graves carencias que, aún hoy, afectan a importantes sectores de la población. De otro, garantizar la atención y cobertura de las necesidades más graves, aplicando el criterio de discriminación positiva con respecto a los más desfavorecidos y desplazados de la sociedad.